

Otxandioko Udal Aldizkaria | 2010eko negua | 11.zenbakia

# GUZURMAIKO



**Herri-Ola** egitasmoa  
XXI. mendeko  
Otxandio eraikitzen

## Interesdun telefonoak

Otxandioko Udala	945 45 00 20	Ayto. de Otxandio
Mediku kontsulta	945 46 14 27	Consultorio médico
Medikuan zita hartzeko	945 45 50 17	Concertar cita
Herri Eskola	945 45 01 01	Colegio Público
Haurreskola	945 45 09 97	Haurreskola
Liburutegia	945 45 05 17	Biblioteca
Nagusien egoitza	945 46 14 03	Residencia de ancianos
Larrialdiak	112	Urgencias
Durangoko ertzain etxea	94 466 93 00	Comisaría Ertzaintza
Autobusak/Autobuses		
La Unión	945 25 84 00	
Bizkaibus (Bezeroentzat)	902 22 22 65	

## Ordutegiak

- Udaletxeko bulegoa  
Astelehenetik ostiralera 8:00-15:00
- Gizarte laguntzailea / Asistente Social  
Azteazkena 8:30-14:30 (ordua eskatzeko deitu aldez aurretik)
- Arkitektoa / Arquitecto  
Ostegunetan (ordua eskatzeko udaletxera deitu aldez aurretik)
- Liburutegia/ Biblioteca  
Asteartetik ostiralera 17:30 - 21:30  
Larunbata 10:00 - 13:00

## Helbide elektronikoak

alkatetza.otxandio@bizkaia.org  
idazkaritza.otxandio@bizkaia.org  
administrazio.otxandio@bizkaia.org  
arkitekto.otxandio@bizkaia.org

ZUEN IRITZIA PLAZARATZEKO HURRENGO HELBIDEETARA  
JO DEZAKEZUE

idazkaritza.otxandio@bizkaia.org  
Postaz: Plaza Nagusia, 1  
48210 Otxandio  
Kontzejupeko buzoia

# GUZURMAIKO



Argitaratzailea: Otxandioko Udala  
Egilea: Otxandioko Udala / Arteman komunikazioa  
Argazkiak: Arteman komunikazioa / Josetxo Aranzabal  
Ale kopurua: 600  
Lege gordailua: SS-1749-2010



Otxandioko Udala  
Plaza Nagusia, 1  
48210 Otxandio  
Tf: 945 450020  
945 450503  
Fax: 945 450362  
www.otxandio.net



## AURKIBIDEA

<i>Editoriala</i>	3
<i>Herri-Ola egitasmoa</i>	4-5
<i>Gaurko gaia</i>	6-7
Udala-Batzordeak	
<i>Hirigintza</i>	8
<i>Kultura</i>	9
<i>Komunikazioa</i>	10
<i>Presoak</i>	10
<i>Berba gitxitan</i>	11



UDAL GOBERNU TALDEA

## *Eraiki dezagun etorkizuna*

**K**omunikabide ezberdinek egunero gogora arazten digute garai zailak bizi ditugula: krisi ekonomiko-finantziarioa, estatuen kiebrak, aldaketa klimatikoa, krisi ekologikoa, gudak... Badirudi mundua egiturazko ezegonkortasun aro batean murgiltzen ari dela, ziurgabetasuna nagusi izango den aldaketa aro konplexu eta zail batean. Jakina da horrelako garaietan arrisku eta mehatxuak ugaritu egiten direla, baina, era berean, bizi dugun aroa egoki ulertu eta interpretatzen asmatzen dutenentzat, aukerez betetako garaia ere izan daiteke. Hori du oinarrian, hain zuzen ere, *Guzurmaiko* ber-

rritu honetan aurkeztu dugun Herri-Ola egitasmoaren bitartez otxandioarroi egiten dizuegun proposamenak; interpreta dezagun oraina, irudikatu dezagun etorkizuna, eta ezberdinen arteko elkarlana oinarri hartuta, ekin diezaiogun XXI. mendeko Otxandio eraikitzeari. Azken urteotan

ahalegin berezia egin dugu gure herria berritu eta gainontzekoen parera ekartzeko, eta orain, bizi dugun aro aldaketak zabaltzen dituen aukerak aprobetxatuz, etorkizuneko Otxandio eraikitze bideari ekiteko garaia dela uste dugu. Horretarako, gure herriaren garapena hiru oinarri-zutaberengan egituratzea proposatzen dugu; iraunkortasuna (gure ingurune naturalarekiko oreka), gure izaera euskalduna eta herritarron parte hartzea. Eta jo mugan helburu nagusi bat; Otxandioarren bizitza kalitatea. Hauek dira denbora mugarik ez duen Herri-Ola egitasmo-prozesuaren ezaugarri nagusiak, ikuskera eta pentsaera ezberdineko herritarren arteko elkar ulertze batetatik abiatuta, aurkakotasun politikoen gaintik herri izaerari indarra eman, eta udal politikagintza ulertzeko modu berri bat abian jartzea ipar duen egitasmoa. Euskal Herrian irekitzen ari den eszenatoki berriak ere lagunduko du herritarron arteko konfiantza ezak gainditu, eta ezberdintzen gaituena- ren errespetutik, Otxandiok, eta zergatik ez, Euskal Herriak egin behar duen bidearen inguruko oinarritzeko ikuspegi bat konpartitzeko lanean. Erronka handia da, indarra eta ilusioa, ere bai.

*“Herri-Ola egitasmoaren bitartez otxandioarroi egiten dizuegun proposamenak; interpreta dezagun oraina, irudikatu dezagun etorkizuna, eta ezberdinen arteko elkarlana oinarri hartuta, ekin diezaiogun XXI. mendeko Otxandio eraikitzeari.”*

## Construyamos el futuro

*Vivimos tiempos difíciles, ya se encargan los medios de comunicación de recordárnoslo a diario: crisis económico-financiera, bancarrota de estados, cambio climático, crisis ecológica, guerras... Todo parece indicar que nos adentramos en una época convulsa, llena de incertidumbres e innumerables amenazas. Pero toda época de cambios es también época de oportunidades, y es precisamente esa visión constructiva la que inspira el proyecto Herri-Ola que presentamos en esta renovada revista. Herri-Ola aspira a ser un proyecto-proceso construido entre diferentes, un proyecto que desde el respeto a nuestras diferencias, articule espacios participativos de trabajo, para que, entre todos/as, construyamos una visión compartida de la senda que ha de seguir el desarrollo de nuestro pueblo.*

# herri-ola

## egitasmoa

OTXANDION AZKEN URTEOTAN EGINDAKO HAUSNARKETA PROZESUAK BERE EMAITZAK EMAN DITU DAGOENEO. UDALAK HERRI-OLA ABIARAZI DU, OTXANDIOK DITUEN BALIABIDE NATURALEN ARABERAKO GARAPENA OINARRI HARTUTA, OTXANDIOTARREN BIZI-KALITATEA HOBETZEKO. GAUR EGUNEKO GARAPEN EREDUA BERRASMATU NAHI DUTE, IRAUNKORTASUNA, PARTE-HARTZEA ETA EUSKALDUNTASUNA ZUTABE HARTUTA. EGITASMO HONEN BAITAN, GAINERA, OIHANDI BAILARAKO BESTE UDALERRIEKIN ELKARLANA BULTZATU NAHI DUTE, BAILARAKO BIZTANLE GUZTIEN MESEDERAKO.

Otxandion urte asko daramatzate herriaren etorkizuna irudikatze-ko hausnarketa prozesu sakonean. Hausnarketa honetan herritar askok eta zenbait adituk esku hartu dute eta orain arteko garapen eredia ez-baian jarriz, prozesu berritzailea abiatu dute.

Garapen eredu orekatu baten alde egin nahi dute, zeinek elkartasuna, konpromisoa eta soiltasuna moduko baloreak oinarri izango dituen. Eta, bide batez, hausnarketa prozesu hau bizi dugun krisi ekologiko eta sozialari ingurune hurbilean erantzuteko baliatu nahi izan dute. Hala, beraien ingurune naturalak dituen baliabide eta ezaugarriak kontutan hartuko dituen, eta bailarako biztanleen bizitza kalitate helburu izango duen prozesua bultzatu nahi dute.

Aipatu prozesua trantsizio egitasmo dinamiko, ireki eta zabal gisa ezaugarritu dute, zeina ez dagoen denbora horizonte zehatz bati lotuta. Zentzu horretan, erritmoak baino, adostasun zabala bilatzeak zein oinarri sendoak ezartzeak izango dute lehentasuna.

### Herritarrak protagonista

Herri-Ola izena jarri diote, herritarrei dagokielako antzina burdin-oletan burdina moduan, egitasmu honen baitan herriaren etorkizuna lantzea. Baina egitasmoko protagonista nagusia Otxandio bada ere, Oihandi bailarara (Anboto, Gorbea eta Urrunagako urtegiak osatzen dutena) begira garrantutako egitasmoa da, gainontzeko herriekin elkarlana bultzatuz.

Egitasmuak hiru zutabe edo ipar nagusi ditu: batetik, Iraunkortasuna. Natura ulertu eta berarekin oreka bilatzen ahaleginduko dira, herria bere ingurune naturalaren parte gisa ulertzen dutelako. Hala, energia eta material fluxuak maila lokalean aztertuko dituzte.

Bestetik, Parte-hartzea. Herritarrak dira egitasmu honen protagonista nagusiak. Horretarako, ordezkarietan oinarritutako eredia gaitu eta demokratia parte hartzailea eraiki nahi dute.

Azkenik, Euskalduntasuna. Otxandioaren izaera euskalduna funtsezkotzat jotzen dute. Horregatik, eleaniztasuna eta kultura aniztasuna euskara eta euskal kultura nagusi izango diren tesuinguruan ulertzen dituzte.

### *Herri-Ola, un innovador proceso forjado por y para los otxandiotarras*

*Tras años de reuniones, ha nacido el proyecto Herri-Ola, impulsado por y para los otxandiotarras. Tiene como objetivo un modelo de desarrollo para Otxandio y la comarca basado en la sostenibilidad (entendido como el equilibrio con el entorno natural), la participación y que tenga la cultura vasca y el euskera como referentes.*

*Lo presentan como un proceso de transición dinámico, abierto y participativo, donde más que el ritmo de avance, primará la búsqueda de consensos ampliamente compartidos. Como fin último del proceso sitúan la calidad de vida de los vecinos de Otxandio y la comarca.*

*El Consistorio ha elaborado diez proyectos que irán desarrollándose según sean aprobados por los otxandiotarras: Herritarron Kontseilua, el máximo órgano decisivo donde se presentarán los diferentes proyectos; Basolanda, ordenación y protección del entorno natural; Ura, gestión del ciclo integral del agua; Zero zabor, reutilizar y reciclar los residuos; Oreka, aprovechamiento de energías renovables; Oinez, movilidad sostenible; Nagusi, responder a las necesidades de la tercera edad; Etxea, desarrollo de la política de vivienda; Lana, creación de puestos de trabajo; y Mairondo, convertir este enclave en un espacio para la educación-cultura-deporte-descanso.*



## HAMAR PROIEKTU

OTXANDIOTARREN BIZI KALITATEA HELBURU DUEN HERRI-OLA TRANTSIZIO EGITASMO ERRALDOIAK ESPARRU DESBERDINAK JASOTZEN DITUBEREBAITAN. HALA, HERRITARREKTALDEKA AZTERTUKO DITUZTE PROIEKTU EZBERDINAK. ETA ERA BEREAN, PROIEKTU HORIETAKO ASKOK BESTE BATZUK ELIKATUKO DITUZTE; IZAN ERE, HERRI-OLA ETENGABEKO MUGIMENDUAN DAGOEN EGITASMODINAMIKOA BAITA. ZENTZU HONETAN, IREKITA DAGO BERE FILOSOFIA ETA PRINTZIBIOEKIN BAT EGITEN DUTEN PROIEKTU PROPOSAMEN BERRIETARA.



### Oinez.

Proiektu honek mugikortasuna dauka jomugan eta helburua motordun ibilgai- luetan egiten diren joan-etorriak ahalik eta gehien murriztea da. Horretarako oi- nezkoentzako espazioak bultzatuko dira.

### Nagusi.

Hirugarren adineko pertsonen beha- rrei haren ingurune familiar hurbi- lean erantzuna ematea da proiektu honen helburua. Horretarako zerbitzu eta azpiegitura berriak garatuko dira.

### Etxea.

Proiektu honetan udalak garatu beha- rreko etxebizitza politika definitzen da, alkilerrean oinarritutako jabetza eredu komunitario eta malgu baten aldeko apustua eginez.

### Lana.

Otxandion nahiz inguruko herrietan bizi direnei lana ematea da proiektu ho- nen helburua. Horretarako, gaur egun existitzen diren eragile ekonomikoekin harreman iraunkorrak lantzeaz gain, Herri-Ola egitasmoaren garapenerako beharrezkoak diren jarduera ekonomi- ko berriak bultzatuko dira.

### Mainondo.

Maiñondo moduan ezagutzen den ere- mua hezkuntza - kirol - kultur - atsedeen gune gisa egituratzea da helburua. Ho- rretarako kirol azpiegiturak berritu, eta kultur gune baten nahiz atsedeen gune baten garapena bultzatuko dira. Atse- den gunearekin turismoa erakarri eta Herri-Ola egitasmoaren zerbitzura jar- tzea bilatzen da.

### Herritarren Kontseilua.

Otxandioko herritarrak Herri-Ola egitas- moaren baitan erabakiak hartzeko dau- katen organo gorena da. Herritar guztiak daude deituta eta horietatik batzuek etor- kizunean eratuko den kontseilu iraunko- rrean ere parte hartzeko aukera izango dute.

### Basolanda.

Bailarako paisaia babestu eta balioan jarriko duen landa luraren antolaketa egokia definitzea da proiektu honen hel- burua. Nekazaritzara eta abeltzaintzara bideratutako lur erreserba bat zehaztea; energia berriztagarrien ustiapen iraun- korra ahalbidetzea, nahiz balio natural handiko guneak babestea dira, besteak beste, proiektu honen lehentasunak.

### Ura.

Uraren zikloa bere osotasunean eta pers- pektiba integral batetik kudeatzea da proiektu honen helburu nagusia; itur- buruetatik abiatu eta ur zikinen araz- ketaraino, eta herritarrengandik hurbil egongo den kudeaketa eredu publiko ba- ten aldeko apustua eginez.

### Zero zabor.

Zaborraren gaikako bilketa egin eta ahalik eta gehien berrerabili eta birzi- klatzea da helburua, zaborra hondakin gisa tratatuzetik lehengai gisa tratatze- ra salto eginez.

### Oreka.

Petrolioarekiko dependentsia murriz- tea da proiektu honen helburua. Horre- tarako inguruneak eskaintzen dituen energia berriztagarriak aprobetxatu nahi dira. Lehen pausu gisa bi ikerke- ta ildo abiatu dira: etxeetako hondakin organikoekin eta abeltzaintzako hon- dakinekin elikatutako biometanizazio plantari eta biomasaren aprobetxamen- duari buruzkoak.

# Uraren kudeaketa

**H**erri-Ola egitasmoaren baitan dauden proiektuetatik, uraren gainekoa da lehenengo landu dena. Egitasmo honen filosofiari jarraiki, uraren kudeaketa ereduak aztertzea helburu duen prozesu irekia zabaldu dute.

Horretarako Uraren inguruko Herri-tarron Kontseilua deitu zuten, eta Udalak landutako uraren kudeaketarako bi ereduak aurkeztu ondoren, herri-tarrek beraien balorazioa egiteko aukera izan zuten.

Lehenik eta behin, herritarrak 2010eko ekainaren 16an deitu zituzten *Herriko Urak* izena zuen Herri-tarron Kontseilura. Euri jazaren ondorioz, baina, batzarra uztailaren 7an errepikatu behar izan zuten. Lehenengo deialdira 43 herritar bertaratu ziren eta bigarrenera, berriz, 37 lagun.

Hasiera batean, Aritz Otxandiano alkateak Otxandio kokatua dagoen ingurune naturalaren ezaugarriak azaldu zituen. Hain zuzen ere, azaldu zuen udalerrria LICez inguratuta dagoela. LICak gazteleraz “Lugares de Interés Comunitario” dira, eta hala izendatuta daude Urkiolako eta Gorbeiaiko parke naturalak eta baita Urrunagako urtegiaren ingurua ere. Horrela izendatuta dauden gunek balio natural handiko espazioak dira, eta Europar Batasunak babes maila altuenarekin babestuak ditu. Alkateak azpimarratu zuen herri gutxi direla halako balio handiko ingurune naturala dutenak; eta horrek arriskuak nahiz aukera dakartzala berarekin, egoki kudeatu behar direnak.

Horren ostean, Kimetz Munitxak, ubide eta portuetan ingenieria denak, uraren kudeaketarako bi aukeren nondik-norakoak azaldu zituen: batetik, biodisko eta sistema ekologikoetan oinarrituta araztegia proposatzen duena. Aukera honek, ingurune naturalaren baldintza eta aukerak aprobetxatzen ditu, eta uraren kudeaketa udalaren eskuetan mantentzeko aukera irekitzen du. Eta bestetik, sistema konbentzionala. Honek, kudeaketa eta ustiapen kostu altuak direla medio, uraren kudeaketa Bizkaiko Ur Partzuergoaren esku uztera behartzen ditu.

Munitxaren esanetan, biodiskoak eta sistema ekologikoa batzen dituen sistema hibridoa berritzailea da eta Euskal Herrian ez dago oraindik halako esperientziarik. Biodisko sistemak, sistema konbentzionalarekin alderatuta, energia

kontsumo herena daukala eta mantenu kosteak erdira jaisten direla dio. Sistema ekologikoari dagokionez, zingira edo urmaelen konbinazioan oinarritzen da, eta pantano muturraren berreskuratze proiektu zabalago batean kokatzeko aproposa ikusten du. Hala, Munitxaren esanetan, horrelako sistema hibrido baten alde egiterakoan, ur zikina balio gabeko hondakin gisa tratatzetik errekurtsio gisa kontsideratzea pasako litzateke.

Uraren gaineko batzar irekian parte hartu dutenen artean, honako hauek dira batzarraren bukaeran jasotako puntuazioak: informazioaren ulergarritasunak 7,9eko puntuazioa jaso du; lan dinamika- ren egokitasunak, 8,17koa; biodiskoak eta sistema ekologikoak batzen dituen aukerak, 8,55; eta araztegi konbentzionala oinarri duenak, berriz, 3,59.





**Lorea Gabiola**  
Herritarra

**Zer dela-eta hartu duzu parte? Eta zer iruditu zaizu uraren gaia lantzeko antolatzen den prozedura?**

Kalean ikusi nuen kartel baten, uraren kudeaketa lantzeko batzarra antolatuta zegoela eta interesgarria iruditu zitzaidan; are gehiago, aspaldi araztegien gainean ikasi nuen eta gaia interesgarria da nire ustetan.

Herritarrok informatzeko eta parte hartzeko prozedura mota oso interesgarria iruditu zait, hainbat arrazoiengatik. Informazio zuzena jasotzeko bidea eman dute; baita guk mahai gainean jarritako kezka eta zalantza guztiak azaltzeko eta horien erantzunak berehala jasotzeko; eta ura moduko gai garrantzitsu baten parte hartzeko aukera izatea oso esanguratsua da, gainera.

Prozedura oso ondo prestatuta zegoela iruditu zait: sartzerakoan mahai desberdinetara bideratu gaituzte, ezezagunekin mahaia partekatu eta gure artean eztabaidatzeko. Horrez gain, azalpen guztiak entzunda, irtererakoan, uraren kudeaketaren gaineko bi aukerak puntuatzeko eskatu digute, eta ez bat edo bestea aukeratzeko. Hori oso positiboa da nire ustez, adibidez, bi aukerek dituztelako gauza onak, eta nahiago dudalako bakoitzak dituen alde on eta txarrak nabarmendu.



**Azalpen guztiak entzunda, irtererakoan, uraren kudeaketaren gaineko bi aukerak puntuatzeko eskatu digute, eta ez bat edo bestea aukeratzeko. Hori oso positiboa da nire ustez, adibidez, bi aukerek dituztelako gauza onak, eta nahiago dudalako bakoitzak dituen alde on eta txarrak nabarmendu.**

**LOREAREN PROPOSAMENA**

> Loreak biodisko eta sistema ekologikoaren alde egingo luke. “Bi aukerak dira proposak eta egokiak, baina ekologikoak abantaila gehiago dituela uste dut: udalak berak, Bizkaiko Ur Partzuegoaren premia izan gabe, ura zuzenean kudeatu ahal izatea oso positiboa da eta metodo ekologikoak kostu txikiagoak ditu. Sistema ekologikoak funtzionatzen badu, zergatik ez, horren alde egin, sistema artifizialagoak landu beharrean?; eta, azkenik, sistema ekologikoetan oinarritutako araztegia ezarri ahal izateko Mekoleta ingurua oso proposa da; hala, Mekoleta inguruari erabilera interesgarria eman ahal zaio”. Eta horri beste hau gehitu nahi izan dio Loreak: “Nik uste dut partzuegoari berari ere interesatzen zaiola sistema ekologikoak emaitza onak ematen dituen edo ez ikustea, gero berak ere praktikan jartzeko”.



**Bi aukerak dira proposak eta egokiak, baina ekologikoak abantaila gehiago dituela uste dut.**



*El agua, un bien a gestionar*

*El del agua es el primero de entre todos los proyectos recogidos en Herri-Ola que ha sido tratado en el Consejo Ciudadano. El ayuntamiento está analizando la mejor opción para gestionar el tratamiento del aguas residuales en el municipio y ha presentado las diferentes opciones a los/as otxandiotarras para que sean valorados. Para ello, ha apostado por un proceso participativo y convocó una primera reunión para el 16 de junio. Dicha reunión tuvo que repetirse el 7 de julio a raíz de las fuertes lluvias. En la primera convocatoria participaron 43 vecinos y en la segunda, 37.*

*El alcalde de Otxandio, Aritz Otxandiano, explicó que el municipio está situado entre varios LIC (Lugares de Interés Comunitario): los parques naturales de Gorbeia y Urkiola, así como los alrededores del embalse de Urrunaga. Otxandiano destacó que muy pocos municipios cuentan con un entorno natural de estas características; y que ello conlleva ciertos riesgos, pero a su vez abre interesantes posibilidades, que es necesario gestionar de manera adecuada.*


*A continuación, Kimetz Munitxa, ingeniero de puertos y caminos, dio cuenta de los diferentes sistemas de tratamiento y gestión del agua analizados: uno, híbrido entre biodiscos y sistemas ecológicos; y otro, el sistema convencional. Según Munitxa, el sistema híbrido, valiéndose de las condiciones medioambientales de Otxandio, posibilita una gestión directa del agua por parte del ayuntamiento. La opción basada en el sistema convencional, por su parte, debido a los altos costes de mantenimiento y explotación, obligaría a delegar la gestión en el Consorcio de Aguas de Bizkaia. Munitxa destacó, también, que el sistema híbrido consume un tercio de energía que el convencional, que los gastos de mantenimiento son del orden de la mitad, y que la cola del embalse en el entorno de Mekoleta reúne las condiciones necesarias para albergar el sistema ecológico.*

*Los participantes en la reunión puntuaron cada uno de los sistemas: el sistema híbrido contó con una puntuación total de 8,55; y el sistema tradicional, con 3,59.*

## HIRIGINTZA

»ZAHARBERRITZE LANAK

## Andikona plazako lanak hasita daude dagoeneko



Andikona plaza obretan dago, udalak goitik behera eraberritu nahi duelako. Plaza egokitzeaz gain, Otxandio bonbardatu zutenaren 75. urteurrena gogoratuko duen eskultura, Nestor Basterretxeak egina, jarriko dute.

Andikona plaza ezaguna da herrian Gerra Zibileko bonbardaketan jende asko hil zelako bertan, baina gaur egun ez da ia erabiltzen. Ohitura hori aldatzeko asmoz, udalak urrian hasi zituen lanak. Aurretik hainbat arkeologo ingurua aztertzen ibili dira, zonaldeak arkeologia presuntzioaren izendapena daukalako, hau da, antzinako aztarnak egon daitezkeenaren ustea dagoelako. Horretan zeresan handia dauka Mainerrota inguruan zegoen errotak eta haren kanalak. Arkeologoek ingurua ikuskatu ostean, beste zenbait aurkituntzen artean, XVI. mendeko txanpon batzuk aurkitu dituzte; eta orain berriro lanei ekin diete. Hala, han dagoen etxe zaharra bota, eta jarraian, lurra berritzeari ekingo diote.

### Bonbardaketari buruzko eskultura

Plaza berrian Nestor Basterretxeak egindako eskultura bat jarriko dute, 2011ko Santamaina jaietan Otxandio bonbardatu zuteneko 75. urteurrena beteko delako. Eskulturak, gainera, alboan zuhaitz bat izango du. Udalaren asmoa da plaza osoa bukatuta eta eskultura eta zuhaitza jarrita egotea data horretarako, orduan inauguratuko dute-eta. Proiektu guztiak 400.000 euroko aurrekontua izango du; horren barne daude etxearen eraisketa, arkeologia lanak, aurkitutakoaren dibulgazioa, Nestor Basterretxearen lana eta proiektua azaltzeko bideo-muntaiak, besteak beste. Udalaren asmoa da plaza hau orain dela 75. gertatu zen sarraskiaren oroigarri eta sinbolo bihurtzea.

»ZAHARBERRITZE LANAK

## Elixoste urbanizatu eta anbulatorioa egiteko prozedura hasita

Udalak bi egitasmo handi egin nahi ditu Elixoste inguruan. Asmoa da oso egoera txarrean dagoen eraikina, zinema izan zena, botatzea; eta horren lekuan, eraikin berri bat egitea. Udalaren nahia da eraikin berrian anbulatorio berria jartzea eta, bide batez, bertan pediatria zerbitzua ere martxan jartzea. Horrez gain, jakina, ingurune guztia urbanizatu egingo dute.

### 2011n zinema zaharraren desjabetzea

Lehenengo urratsa da zinema zaharra desjabetzea eta udaleko ordezkariak uste dute desjabetzea 2011n gauzatu ahal izango dutela. Izan ere, eraikin hori oso egoera txarrean dago, ia erortzeaz; eta ingurunea ere Otxandion egoera txarrean dagoen espazio publikoa da. Arrazoi horregatik, udalak Jaurlearitzak sortutako Hiriber izeneko dekretua baliatuta, Elixosteko urbanizazioa diruz laguntzeko eskaera egin zuen. Zoritzarrez, baina, eta gutxigatik, ezin izan zuten laguntza hori eskuratu. Hala ere, udalak lanean jarraituko du finantziarioa bilatu eta dituen asmoekin aurrera egiteko.

### Urbanizazio proiektua idatzita

Urbanizazio proiektua idatzita dago dagoeneko, besteak beste, Jaurlearitzan diru-laguntza eskatzeko ezinbestekoa zelako. Urbanizazio proiektuak 750.000 euroko aurrekontua dauka eta bere baitan ur eta saneamendu sarea berritzea, hiri altzariak jartzea, eta inguruneari harrizko bukaera ematea aurreikusten ditu, besteak beste.

Udalak Osakidetza ordezkariengana ere jo du anbulatorio berriaren proiektua idazteko. Udal ordezkariaren ideia da eraikinak etxabea eta bi solairu izatea; etxabea anbulatorioa jarriko lukete eta bi solairuetan adineko pertsonen bideratutako tutelatutako etxeak edo/eta gazteentzat alokairuzkoak.





## KULTURA

»ERAKUSKETA ARETOA

**Bolaleku aretoa herritarrek erabiltzeko gonbidapena**

Udalak Bolaleku zaharra berreskuratu zuen. Gerora, gainera, kristalarekin babestu dute bertan zikinkeria sortu eta pilatu ez zedin. Hala ere, betiko itxura mantendu dute.

Ekainean inauguratu zuten eta horretarako erakusketa bat izan zen ikusgai. Gerra Zibileko bonbardaketari eta Andikona plazako proiektuari buruzko hainbat panel, argazkiak eta bideo-animazio bat jarri zituzten bertan. Handik gutxira, berriz, Urduri dantza taldearen 50. urteurrenean argazki erakusketa egin zuten. Eta urrian, margo lehiaketako lanak egon dira ikusgai.

Bestalde, udalak 2011n aretoan hainbat erakusketa egiteko asmoa dauka, baina herritarrei gogoratu nahi die erakusketak, batzarrak edo bestelako erabilerak emateko aproposa dela Bolaleku aretoa eta denontzako zabalik dagoela.

»BONBARDEAKETA

**Bonbardeaketari buruzko informazioa batuta**

Udalak eta Eusko Ikaskuntzak Otxandio bonbardaketari buruzko kontuak ikertzeko kontratatuko langileak ia bukatu du bere lana. Asmoa da Gabon inguruan landutakoa erakustea.

Ia bi urte pasa dira Otxandio Udalak, Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmen bat egin eta pertsona bat Otxandio bonbardaketaren historia batzen jarri zuela. Dagoeneko informazio asko batu du eta baita irudiak ere. Gainera, hainbat testigantza jaso ditu, eta horietako asko bideoan ere hartu ditu.

Egindako lanak oniritzia jaso bezain laster, argitalpenen bat prestatzen hasiko dira, eta lan horrek kalean izan beharko du 2011ko uztaileko bonbardaketaren 75. urteurrenerako.

Lan honek Otxandio Errepublika garaian kokatuko du, bonbardaketan Andikonan hildakoen izen-abizenak jasoko ditu, fronteari buruz zabal hitz egingo du eta frankismo garaian bizitakoak kokatuko ditu, besteak beste.

»AINTZINAKO ARGAZKIAK


***Otxandio eta otxandioarren argazkiak herritarren eskura***

Udala Otxandiori buruzko argazki artxibategia egiten dabil. Herritarrek utzitako argazkiei eta udalak urteetan egindako irudiei, Santi Kapanagaren bilduma gehituko diote.

Kultura batzordearen asmoa da digitalizatuta dituzten argazki horiek poliki-poliki jendaurrean erakustea. Horretarako, pentsatzen dabilta gaika banatzea: koadrilak, familiak, ospakizunak, artistikoak... Hala ere, sailkapen hori egin gabe dago oraindik.

Kapanagarenak 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadakoak dira gehienak. Horrez gain, badira udalarenak direnak eta familia batzuk eta Bizkaiko Foru Aldundiak utzitakoak ere.

Bitartean, Kultura batzordetik jakinarazi dute Gerra Zibilaren garaiko argazkiak behar dituztela, eta herritarrei eskatzen diete halakorik izanez gero, udaletxera eraman eta eskaneatu ahala, bueltatuko dizkietela.



## KOMUNIKAZIOA

&gt;&gt;WEBGUNEA

Udal webgunea  
otsailerako berritua

Udala *otxandio.net* webgunea berri-tzen dabil. Plazagunea enpresa dabil diseinua egiten eta otsailerako prest egongo da. Webgune berriak udalaren zerbitzuez gain, turismo gunea, Herri-Ola egitasmoari buruzko tartea eta albisteak nahiz herritarren blogak jasoko ditu.

Asmoa da webgunea herritarrek parte hartzeko gune bat izatea, udalaren eta herritarren premia berriei erantzungo dien komunikazio tresna eraginkor bihurtzea. Plazagunea enpresari esleitu dizkiote lanok 15.000 euroko aurrekontuarekin eta otsailerako erabilgarri egongo da.

Webgune berriak atal bereizgarri gehiago izango ditu, nahiz eta ataria berdina den: *otxandio.net*. Udalaren ohiko zerbitzuez gain (udal zerbitzuak, kontaktuak, arte eta kultura ondarea, kontratazioak...), badira berriagoak ere: Turismo gunea, esaterako. Udalerriaren egin daitezkeen ibilbideak zerrendatuko dituzte, eta kontsultak egin zein ibilbideen GPS track-ak deskargatu ahal izango dira. Gune berean, Otxandioren berezitasunak azalduko dituzte: kale giroa, eraikin eta gune deigarrienak, ingurune naturala... Baita, jakina, lo lekua eta jana eskaintzen duten zerbitzuak ere.

Bestalde, Herri-Ola egitasmoak ere gune bereiztua izango du. Egitasmoaren nondik-norako guztiak eta trantsizio-prozesu horrekin lotuta jasotako informazio guztia hor egongo da eskuragarri.

Horrez gain, herritarren kezka eta iritziak jasotzeko, galderak plazaratzeko tartea zabalduko dute, inkestak egingo dituzte eta herritarrei blogak zabaltzeko gonbidapena egiten diete, hilerio edo hamabostero iritziak idatz ditzaten.

## PRESOAK

&gt;SALAKETA

## Egoitz espetxean

Joan den irailaren 14an Otxandioko Egoitz Garmendia eta beste zortzi euskal herritar atxilotuak izan ziren. Bost egunetan inkomunikatuta egon eta gero, Egoitzek izugarritzko torturak jasan zituela jakinarazi zuen. Hemen jasotzen da Egoitzten testigantza:



- “Madrilera bidean auto batean eraman ninduten, uneoro makurtuta egon nintzen...”.
- “Behin Madrilera iritsita, kolpeak eta poltsa saioak hasi ziren. Askotan poltsa buruan jarri zidaten arnasarik gabe uzteraino”.
- “Poltsa buruan estututa nuela, ur botila batekin kolpeak ematen zizkidaten”.
- “Ariketa fisikoak eginarazi zizkidaten eta ezetza ematen nuen bakoitzean ostikoka hasten zitzaizkidan”.
- “Begiak antifaz batekin estalita izan nituen momentu oro”.
- “Manta batekin bildu zidaten gorputza eta prezintoarekin lotu, gomaespumazko koltxo batekin bildu ninduten ondoren, hankak lotu zizkidaten eta hiru Guardia Zibil gainean bota zitzaizkidan, bata barrabiletan saltoka, bestea buruan eta bestea hanketan”.
- “Tortura metodo hau askotan errepikatu zidaten eta horren ondorioz, askotan galdu nuen konortea”.
- “Behin, ziegara eraman nindutenean, urez busti ninduten goiztik behera eta arropa bustiarekin egon behar izan nuen”.
- “Biluztu egin ninduten eta makila uzkiean sartzeko imintzioak egin zizkidaten, barrabiletan kolpeak ematen zizkidaten bitartean”.
- “Galdeketa eta tortura saioak azken egunera arte luzatu ziren”.

Horiek guztiak jakin ondoren, Egoitzek jasandako torturak salatzen sinadurak bildu eta mozioa onartu zuen udalak. Sinadurak Arartekora eramango dira.

## &gt;HERRIKO PRESOEN EGOERA

**Egoitz Garmendia Vera:**

Alcala-mecoko espetxean dago. Lehenengoko asteak oso gogorak izan ziren, atxilotzerakoan sufritu zituen torturengatik eta bakarrik eduki zute-lako, beste preso politikoetatik aparte. Orain beste euskal preso politiko batekin dago ziegan.

**Egoitz Garmendia Vera**

C.P. Madrid II (Alcala) Carretera de Meco, Km 5.  
28.870 Alcala de Henares (Madrid).

**Endika Garate Galarza:**

Valdemoroko espetxean dago, pasa den hilerarte bakartuta egon da, beste presoenganako inolako harremanik gabe. Edozein momentuan epaitu eta berriro ere Frantziara bidaltzeko arriskuan dago.

**Endika Garate Galarza**

Centro penitenciario Madrid III.  
Ctra Pinto San Martin de la Vega  
km 5 cp 28340 Valdemoro (Madrid)  
Módulo 4.

**Iñaki Pujana Alberdi:**

Villanako espetxera eraman dute, bertan preso arriskutsuenak dauden moduluan daukate, horrek dituen mugekin (patio ordu gutxiago, bertako instalazioak ezin erabili...).

**Iñaki Pujana Alberdi**

C.P. Alicante II (Villena)  
Carretera nacional 330, Km. 66.  
03400 Villena (Alicante) Modulo 2

**Iñaki Garces Beitia:**

Zuerako espetxean dago, ikasketak ganoraz burutu ahal izateko traba ugari jartzen dizkiote.

**Iñaki Garces Beitia**

C.P. de Zuera. Modulo 7  
50800 Zaragoza

**Ramon Aldasoro Magunazelaia:**

Villabonako espetxean dago. Legez dagozkion bisita batzuk edukitzeko arazoekin jarraitzen du.

**Ramon Aldasoro Magunazelaia**

C.P. de Villabona. Finca Tabladillo  
Alto. 33480 Villabona (Asturias)

## BERBA GITXITAN



## »ZERBITZUAK

## Aramaioko Udalarekin hitzarmena sinatzear

Otxandioko Udalak 2011 hasieran Aramaioko Udalarekin azpiegiturak partekatzeko eta proiektu komunak bultzatzeko hitzarmena sinatuko du. Gerora, etorriko dira mugakide diren beste udalerrri batzuekin egingo dituen hitzarmenak.

Aspalditik dator Otxandioko Udalaren asmoa. Mugakide diren herriein harreman sendoak egonkortu nahi ditu. Modu horretan, erraztu nahi dute udalerrri bakoitzak dituen zerbitzuak konpartitzea eta indarrak batuz, udalerrri desberdinen intereserako proiektu komunak abiaraztea. Hori guztia helburu jakin batekin: bailararen garapena osotasunean lantzea eta orohar bertako biztanleen bizitza kalitatea ahal den neurrian hobetzea.

Otxandiok mota horretako lehenengo hitzarmena Aramaiorekin egingo du, eta asmoa da bi udalen arteko sinadura 2011 hasieran gauzatzea. Hala, urtea hasi ahala elkarlanean hasiko lirateke bi udalak. Hitzarmen horren bitartez, gainera, Oletako biztanleek otxandiotarren baldintza berean jaso ahal izango dituzte Otxandio herriak eskaintzen dituen zerbitzuak: hala nola, ludoteka, udalekuak, igerilekua eta bestelakoak.

## »URKIOLAKO BIDIE

## Andaparaluzetan obrak egin dituzte

Udala Hiri Antolamendurako Plana berritzen ari zela Bizkaiko Foru Aldundiak trabak jarri zituen Anteparaluzetak landa-auzo gisa jarrai zezan. Izendapen honekin jarraitzea oso garrantzitsua da bertatik igarotzen den errepide nagusian ibilgailuen abiadura murrizteko neurri ezberdinak hartu ahal izateko. Aldundiaren esanetan, Anteparaluzetak ez dauka auzo izaera emango dion erdigune definiturik.

Hala, izendapen horri eutsi eta etorkizunean bertako auzotarren bizi-kalitatea hobetzeko neurriak hartzeko asmoz, udalak Andaparaluzeta auzoan erdigune bat egokitu berri du. Hain zuzen ere, puntu zehatz baten espaloia egin eta iturri bat jarri dute gainean. Lanak udaberrian bukatu dituzte, eta horrek bermatuko du Andaparaluzetak landa-auzo izaerari eustea.



## »TELEVISIÓN

## Siguen los problemas para obtener la señal del TDT

El problema de Otxandio para obtener buena señal de televisión es una cuestión que viene de largo. No obstante, muchos vecinos pensaron que con la implantación del TDT quedaría solucionado. Desgraciadamente, no es el caso y el municipio sigue soportando numerosos problemas. Por una parte sigue recibiendo la señal desde Araba y no desde Bizkaia, como sería lo apropiado. Además, aún no pueden verse algunos nuevos canales como Hamaika Telebista o Nitro, canales por los que muchos otxandiotarras han mostrado su interés. El consistorio se ha puesto en contacto tanto con el Ministerio de Industria y Telecomunicaciones del Gobierno español, así como con las empresas adjudicatarias como Albertis e Itelazpi (empresa pública del Gobierno Vasco), pero ninguna ha mostrado su disposición y capacidad para solucionarlo a corto plazo.



## »INGURUMENA

## Airearen kalitate ona

Durungaldeko Udaltalde 21 taldeak, eskualdeko herrietan Tokiko Agenda 21 bultzatzen duenak, hainbat herrietako aire kalitatea neurtu du, eta Otxandioren kasuan, emaitza onak jaso dituzte.

Hain zuzen ere, Garairekin batera, Otxandio da Durungaldean aire kalitate ona duen udalerrri bakarra, gainontzeko herrien kutsadura mailak kalitate onargarrira baino ez dira iristen-eta.

Neurketak Espainiako dekretuek eta Europako direktibak finkatzen dutenaren arabera egin dituzte. Azterketa horien arabera, Otxandio Mundiako Osasun Erakundeak gomendatutako kutsadura mugen azpitik dago; are gehiago, batzuek beste erakunde honek finkatutako kutsadura mugen erdira heltzen da bakarrik.



**ho**  
herri-ola  
bizitza kalitatea helburu

Anima zaitetz eta

**parte  
hartu!**

## Oihandi bailarako proiektu anitzeko

ura etxea oreka mainondo oinez  
lanazerozabor basolanda  
herritarron kontseiluan agusi...

## egitasmoa

iraunkortasuna } oinarri  
parte-hartzea  
euskalduntasuna

bizitza kalitatea > helburu

eragile ekonomiko } eragileak  
udala  
gizarte zibila